

Sallabenteko jai batzordea

Hogei urte baino gehiago daramate euren auzoko jaietan etengabe lanean: aurrekontuak eskatu, ekintzak lotu, taldea koordinatu, barran lan egin... Hala ere, eurek diotenez, 3 peoratan bizi dira denak eta horrek lana errazten die.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Taldea duela urte mordoia sortu zen eta jaiak frontoian eta ermita inguruan ospatzen genituen. Hala ere, orain dela 22 urte, gutxi gora behera, San Lorenzo eskolako guraso-elkarteak jaiak ospatzeko eskolako lokalak lagatzea erabaki zuen. Momentu horretan gaur egun martxan dagoen batzordea eratu zen eta bi zatitan banatzen da: aisialdia eta kirolak.

- Zenbat kide zarete?

Hogeita bi kide gara, eta guztien artean neska bakarra dago. Gorabeherak egon dira taldekide kopuruan: hasieran 34 kide ginen eta urte batzuetan 18 izatera heldu gara, esaterako. Gurekin lanean hasi eta lagatzea librea da.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Jaiak antolatzea. Horretarako, daukagun diru kopurua kontutan izatea ezinbestekoa da.



- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Otsaila inguruan hasten gara jaiak prestatzen eta irailera arte egoten gara lanean, momentu horretan jaien balorazioa eta hobetu beharreko gauzak aztertzen direlako. Hasieran 15 egunetik behin batzen gara eta jaiak hurbiltzen direnean ia ostiralero bilerak egin behar izaten ditugu. Jaiak heltzen direnean, oso nekagarria da, egun osoan lanean egoten garelako. Era berean, San Lorenzo eskolan biltzen gara, larunbatetan beharrezkoa bada. Bestela, Villa de Ermua Hoteleko batzar-aretoan edo Miguel de Unamuno gizarte-etxean egiten ditugu batzarrak, ez du gu arazorik.

- Jarduera berririk prestatu duzue?

Duela 6 urte Erdi-Aroko azoka egin genuen estreinakoz. Hori antolatzeke sekulako dirutza behar da eta horregatik, jai egitarauan publizitatea ipintzea beharrezkoa zela ikusi genuen. Aurten gainera, Udalak ematen digun diru-laguntzak behera egingo du eta ekintza ezberdinak aztertu behar izan ditugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Jaiak hasi aurretik kartelak ipintzen ditugu, jendea animatzeko, nahiz eta hemen denok elkar ezagutzen dugun. Herrian zeuden auzoko jai guztietatik Sallabentekoak bakarrik geratzen dira. Mila auzo-lagun bizi gara hemen eta jende gehiagok parte hartu beharko luke, gazteek batez ere, eurak direlako datozen urteetan lekukoa hartu beharko dutenak.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
bereztasuna

943 17 39 78